

# Berriz Aizkibelen Euskera eskuizkribuaz: edizioa eta iturriak

Ricardo Gómez

► **To cite this version:**

Ricardo Gómez. Berriz Aizkibelen Euskera eskuizkribuaz: edizioa eta iturriak. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", ASJU-Universidad del País Vasco, 2008, 42 (1), pp.333-379. artxibo-00507121

**HAL Id: artxibo-00507121**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00507121>**

Submitted on 29 Jul 2010

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Berriz Aizkibelen *Euskera* eskuizkribuaz: edizioa eta iturriak

Ricardo Gómez  
UPV/EHU & JUMI

## Abstract

*In this paper I offer a new edition of the Euskera manuscript, written by the bascologist J.F. Aizkibel in 1856. The preliminary study focuses on a survey of the sources extensively used by Aizkibel, which are mainly two: Schleicher's Die Sprachen Europas (1850 [1852]) and Champollion-Figeac's Égypte ancienne (1840). Moreover, the comparison with the sources reveals us that Aizkibel intended to adapt Schleicher's and Champollion-Figeac's analyses to attest that Basque was originally a very ancient monosyllabic language, and that it was spoken by cultured people. Some other linguistic ideas of Aizkibel are also discussed.*

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Euskalaritzaren historian Jose Francisco Aizkibel azkoitiarra (1798-1864) ezaguna da, batez ere, hil ondoan argitaratu zen *Diccionario Basco-Español* lanagatik (Aizkibel 1883) eta baita Esteban Garibairen erretrauen edizio ez oso zuzenagatik ere (Aizkibel 1954).<sup>2</sup> Zernahi gisaz, artikulu honetan Aizkibelen eskuizkribu labur baten edizioa eta

---

<sup>1</sup> Nire esker ona Gidor Bilbao, Joseba A. Lakarra eta Beñat Oyharçabali artikulu honen zirriborroa irakurtzeagatik eta hari egindako ohar eta zuzenketa baliotsuengatik. Mila esker, halaber, Guadalupe Larrarte Tolosako Udal artxibozainari. Lan hau Joseba A. Lakarrak zuzendutako eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako “*Monumenta Linguae Vasconum* (III): crítica textual, lexicografía histórica e historia de la lengua vasca” (FFI2008-04516) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako “Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada” (GIC07/89-IT-473-07) ikerketa-proiektuen babespean egin da. Bestalde, artikulu honen abiapuntua 2007ko azaroan Cadizeko *VI Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística* biltzarrean aurkeztu nuen komunikazioa da (Gómez 2009).

<sup>2</sup> Aizkibelen bizitzaz eta lanez, ikus bitez, besteak beste, Aguirre Sorondo (1983), Elósegui (1949), Garate (1947-48, 1962, 1968), Garmendia Arruebarrena (1994) eta Satrustegi (1989, 1998). Aizkibelen obra argitaratu eta argitaragabe guztiak zerrendatzeak eta katalogatzeak hainbat buruhauste sorrarazi

haren iturrien azterketa aurkeztuko ditut. Eskuizkribuak *Euskera* izenburua du eta Tolodon 1856ko maiatzaren 24an sinatuta dago (Aizkibel 1856a). Egun eskuizkribua Tolosako Udal Artxiboan gordetzen da, B-4-5-1 signaturapean; lan honetarako Axun Aierbek helarazi zizkidan fotokopiez baliatu naiz.<sup>3</sup> Jose Maria Satrustegik aldizkari honetan bertan argitaratu zuen arren (Satrustegi 1977), eskuizkribu honek oraingoz ez du lortu nire ustez merezi duen arreta guztia. Juan Garmendia Larrañagak helarazi zion eskuizkribuaren kopia bat Satrustegiri (1977: 131).<sup>4</sup> Nik dakidala, eta Satrustegik ere uste zuen bezala, ordu arte *Euskera* eskuizkribua guztiz ezezaguna zen euskalarien artean (baina oroit bedi 2. oin-oharrean esandakoa).

*Euskera* eskuizkribuak folio tamainako 16 orrialde ditu, zenbatu gabe eta bi aldeetatik idatziak; paper ofizialeko orri marradunak dira eta, orri bakoitzaren goiko eta eskuineko aldean, Justizia jainkosa irudikatzen duen grabatu bat dute inprimatuta, honako idatzi hau duena: “SELLO 3.º - AÑO 1848 - 4R<sup>s</sup>”; ur-markan haxe agertzen da: “2<sup>A</sup> C<sup>E</sup>”. Letra txiki baina irakurterraza du. Eskuizkribua Aizkibelek bere idazkariari diktatu zion (ik. 102. oin-oharra).

Eskuizkribua zen ezezaguna, baina ez testua. Izan ere, Satrustegik (1977: 133-134) susmatu zuen eskuizkribuko testua Aizkibelek argitaratu zuen “De la lengua Euskera, ó de los Vascongados” diskurtsoari zegokiokeela. Aizkibelen diskurtsoa (1856b) *Album de Azara* izeneko omenaldi-liburuaren barruan<sup>5</sup> argitaratu zen (Castellanos de Losada 1856).<sup>6</sup> Alabaina, Satrustegik ez zuen inprimatuaren alerik aurkitu, ezta Aguirre

---

dizkie euskalariei; Aguirre Sorondok (1983) ahalegin eskerga egin zuen Aizkibelen bibliografia ordenatu nahian, alabaina ez zuen lortu hari guztiak lotzea.

<sup>3</sup> Lan xume hau baliatu nahi nuke Axun Aierbe sailkide eta adiskide zenaren oroitzapen gisa.

<sup>4</sup> Garai hartan beste bi tokitan gutxienez eman zuen Satrustegik *Euskera* eskuizkribuaren berri (Satrustegi 1979a, 1979b).

<sup>5</sup> B. Oyharçabalek ohartarazi zidan *Album de Azararen* garrantziaz eta hari esker aurkitu ahal izan nuen lan honetarako erabili dudana digitalizatua (ik. bibliografia); izan ere, 2007ko Cadizko komunikazioa prestatzeko egin nituen bilaketa bibliografikoak bide okerretik eraman nituen eta antzuak suertatu ziren.

<sup>6</sup> Castellanos de Losadak José Nicolás de Azara y Perera (1730-1804) zaldun aragoiarraren heriotzaren 50. urteurrena omentzeko argitaratu zuen albuma. Liburuan, alor askotako jendeak hainbat hizkuntzatan idatzitako testu laburrak biltzen dira, prosaz zein bertsoz idatziak, horietako batzuk euskaraz. Liburuaren hasieran Azararen biografia hizkuntza eta dialekto askotara itzulita agertzen da; euskarazkoei dagokienez, honako itzulpen hauek agertzen dira: gipuzkera edo “Dialecto antiguo guipuzcoano (Lengua Euskera)”, “A.”-k sinatua, Aizkibelek berak segurki (11-13. or.; gazt. itz. 91-94. or.); zuberera edo “Chuberoco mintzaira (Dialecto souletino, ó sea Vasco francés)”, J. M. Hiribarrenek sinatua (41. or.; fr. itz. 97-98. or.); nafarrera edo “Dialecto vasco-navarro, tal y como se habla hoy en la provincia de Navarra”, Miguel

Sorondok ere (1983: 244-245), eta, beraz, ezin izan zuten ziurtatu *Euskera* eskuizkribuko testua eta Aizkibelen diskurtsokoa bat bera ote zen. Zernahi gisaz, Aizkibelen diskurtsoa Allende Salazar (1887: 166), Vinson (1891-1898: 605) eta Bilbaoren (1970-1975) bibliografietan jasota zegoen, baina luzaroan euskalariek ez zuten lan inprimatu horren edukiaren berririk izan.

Edukiari buruzko aurreneko datuak Garatek (1968) eman zituen. Garatek ezagutu zuen *Album de Azara*-n Castellanos de Losadak idatzi zuen diskurtso baten separata, Juan Ramón Urquijo Sociedad Bilbainako liburuzainak helarazitako fotokopiei esker. Separata horren amaieran, Aizkibelen diskurtsoa dago eta berari eskaini zion Garatek bere 1968ko artikulua.<sup>7</sup> Garateren lanetan ohikoa den anabasaren barruan, Aizkibelen diskurtsoaren edukiari buruzko zertzelada batzuk ematen dizkigu, *Euskera* eskuizkribuarekin lotzeko adinakoak izan litezkeenak (Garate 1968: 122-125).<sup>8</sup>

Artikulu hau prestatzeko erkatu ahal izan ditut, lehenengo aldiz, Aizkibelen eskuizkribua eta inprimatua eta ziurtasun osoz baieztatu daiteke bietan testu berbera dugula, edizioan azalduko ditudan ñabardura txiki batzuk gorabehera.<sup>9</sup> Bestalde,

---

Auzak sinatua (59-60. or.; gazt. itz. 91-94. or.). Aurrerago, euskarazko zenbait olerki eta gutun ditugu: Goyetcheren “Elogio sucinto del inmortal Azara, en vascuence” olerkia (282-287. or.; fr. itz. 389-392. or.), M. Hiribarrenen “Vascongado labortano. A Azara” olerkia (299-302. or.; fr. itz. 385-386. or.), J. A. Uriarteren “Done Antonio Abbadie Jauna.= Markinan Maiazaren seigarrenean milla zortzireun taberroqueta amabostean” gutuna —Azarari eskainia ez izanik ere, liburuan sartzea erabaki zuen Castellanos de Losadak— (302-303. or.; gazt. itz. 387. or.). Ekialdeko eta Iparraldeko idazkeren erakusgarrietan, zenbatu gabeko orri batean eta “Celtivero y vascongado” izenburupean, P. A. Bourdard-ek signario iberikoa imitatuz idatzitako “Barbaunalac eta Arrotzac” solas laburra dago (gazt. itz. 327-328. or.). Azkenik, eta frantsesez idatzita badago ere, aipagarria iruditzen zait 351-352. orrialdeetan aurkitzen dugun A. Chahoren gutuna.

<sup>7</sup> Satrustegik (1977) ez du aipatzen —eta ez bide zuen ezagutzen— Garateren artikulua hori.

<sup>8</sup> Hauek dira Garateren artikulutik atera daitezkeen bi dokumentuen arteko bat-etortze nagusiak: (i) bakoitzean aipatzen diren autoreen zerrenda; (ii) “Concordancia Vizcayna” izeneko atal bat; (iii) *ekarri* aditzaren jokoak, bietan Garatek (1968: 123) aipatzen dituen forma eta itzulpen berberak daudelarik; (iv) Garatek (1968: 124) dakartzan beste hitz eta etimologia batzuk, *Euskera* eskuizkribuan ere agertzen baitira; (v) agiri bakoitzaren amaieran dagoen data berbera izan liteke. Garatek (1968: 122) diskurtsoan “Toledo 24 de Mayo de 1836” irakurtzen duen arren, nik erabili dudana alean argi eta garbi “1856” irakurtzen da; Garatek erabili zituen fotokopien kalitateari egotz lekieke gaizki irakurtzearen errua.

<sup>9</sup> Horrezaz gain, ohartarazi behar da Aizkibelek eskuizkribuan zein inprimatuan adierazten dituen ideia eta analisi franko azkoitiarraren beste testu batzuetan ere agertzen direla. Ikus, esaterako, Ramón de Guereca Gipuzkoako Aldundiko idazkariari 1856ko otsailean idatzitako gutun batean aipatzen dituen euskararen ezaugarri gramatikalak, hiru hilabete geroago idatziko zuen eskuizkribukoaren laburpentzat har litezkeenak: “Hace muchos siglos que se estan estudiando todas las lenguas del Universo con el objeto unos de hallar la lengua primitiva (que nunca se hallará), y otros la mas perfecta, y sencilla en su construccion al paso que sea muy rica en sus elementos primitivos, derivaciones y de composicion. He aqui precisamente en el Bascuence la lengua deseada, compuesta de radicales primitivas monosilabicas,

inprimatuan agertzen diren huts batzuk aintzat harturik, begitantzen zait Aizkibelek ez zuela parte hartu haren argitaratzean eta, ondorioz, nahiago izan dut hemengo edizioa eskuizkribuan oinarritu. Haatik, “De la lengua Euskera, ó de los Vascongados” diskurtsoaren faksimilea eskainiko dut eranskin gisa.

Hurrengo lerroetan *Euskera* eskuizkribuaren iturriak aztertuko ditut, Aizkibelek bere testua ontzean zein autore eta noraino erabili zuen argitzeko asmoz. Bide batez, iturrien aztertzeak aukera emango digu Aizkibelen testuan azaltzen diren hizkuntz ideia nagusiak ere aurkezteko. Azkenik, *Euskera* eskuizkribu osoaren edizioa paratu dut, Satrustegirenean zeuden huts bakanak zuzenduz, inprimatuarekiko aldaerak azalaraziz eta Aizkibelek erabilitako iturrien testu paraleloak ere eskainiz.

## 2. Schleicher-en eragina

*Euskera* eskuizkribuan Aizkibelek erakusten du ongi ezagutzen duela August Schleicherrek urte batzuk lehenago argitaratu zuen *Die Sprachen Europas* (1850) liburua, seguruenik 1852ko frantsesezko itzulpenaren bitartez; izan ere, itzulpen horren ale bat dago Aizkibelen liburutegian, gaur egun Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen dena.<sup>10</sup>

Emilio Ridruejoren arabera (2002), Espainian Schleicherren lana lehen aldiz aipatu zen Monlau-ren hiztegi etimologikoaren bibliografian (Monlau 1856: 508). Horiek horrela, Aizkibelen eskuizkribua lehenbiziko aipamen haren garaikidea izango genuke; haatik, hurrengo lerroetan erakutsiko dudanez, Aizkibelek Schleicherren lanaz egiten duen baliatzea aipamen soiletik askoz haratago doa.

---

de secundarias y terciarias con 58 terminaciones aplicables a cada palabra. Además una sola declinación con tres [números] singular, plural e indefinido, con 27 casos cada número. (No se asuste V. Sr. D. Ramon) y acaso puede tener aun más, que yo no haya alcanzado. Dos verbos uno activo y otro pasivo, por los cuales se conjugan todos los demás. He aquí reducidas a dos las ocho partes de la oración, como sospechaba con fundamento Mr. Beaurce hace cerca de un siglo; nombre y verbo. Esto no lo creeran la mayor parte de los Bascongados. [...] se declinan los nombres por la única declinación que hay, y se conjugan los verbos por las dos únicas conjugaciones que conoce la Euskera con la particularidad de que solo el modo indicativo en el verbo activo tiene 763.334 inflexiones que se aprenden en dos días con lecciones de una hora cada día” (*apud* Agirre Sorondo 1983: 251-252).

<sup>10</sup> Hona Koldo Mitxelena Kulturunearen katalogoko fitxa bibliografikoa: “Schleicher, A., Les langues de l’Europe moderne / par A. Schleicher ; traduit de l’allemand par Hermann Ewerbeck. 319 p. ; 23 cm. Apéndice. - Índice. - Ejemp. procedente del fondo de J.F. Aizkibel. [...] Paris : Ladrangé : Garnier Frères, 1852. [...] Signatura: 2967”.

Aizkibekek Schleicherren liburua aipatzen du eta eskuizkribuan haren ideiak erruz erabiltzen ditu, zenbaitetan Schleicherren liburuko pasarteak hitzez hitz, edo ia hitzez hitz, itzuliz eta egokituz ere. Lehenik eta behin, Aizkibekek *hizkuntzalaritza* eta *filologia* terminoen arteko bereizketa Schleicherren liburuaren hasieran bezalatsu azaltzen du:

No hay que confundir la lingüística con la filología; ésta estudia la lengua para llegar al conocimiento de la esencia intelectual de las nacionalidades, y pertenece a la historia; mientras que aquélla no se ocupa de la historia de las naciones, sino que es una parte de la fisiología del hombre; pues trabaja en la esfera de las leyes naturales inalterables, enteramente fuera del dominio de la voluntad del hombre, y por esto sus fuentes son tan limpias y puras como las de las demás ciencias naturales. (Aizkibel 1856a: 1)

Ce n'est que depuis peu de temps que la science qui a pour objet la Langue en général, s'est séparée en deux branches distinctes. L'une, qui s'appelle la *philologie*, étudie la langue pour arriver par là à la connaissance de l'essence intellectuelle des nationalités; la philologie appartient à l'histoire. L'autre s'appelle la *linguistique*; elle ne s'occupe point de la vie historique des nations: elle est une partie de la physiologie de l'homme.

[...] La linguistique travaille dans la sphère des lois naturelles inaltérables, en dehors du domaine des volontés humaines.

Les sources où la linguistique puise sont aussi limpides, aussi pures que celles des autres sciences naturelles. (Schleicher 1850 [1852: 1-3])

Schleicherren modura (1850 [1852: 9-14]), Aizkibekek munduko hizkuntzak monosilabikoetan, eransleetan eta flexiboetan sailkatzen ditu, eta honi gehitzen dio Schleicherrek irudikatu zuen hizkuntzen mailaz mailako eboluzioa; hots, hizkuntza guztiek aipatu hiru egoeretatik igaro behar izatea.<sup>11</sup> Aizkibelen testuan ez da falta hizkuntzen bilakaeraren eta naturaren hiru erreinu klasikoen arteko erkaketa:

Por el mismo orden de la naturaleza, observado y estudiado por muchos siglos, la lingüística ha dividido en tres clases todas las lenguas del Universo, a saber, *monosilabismo – aglomeración o aglutinación – y flexión*, en analogía con las tres clases de organismos naturales, que son – *minerales – vegetales – animales*, porque sin los primeros no puede haber los segundos, ni sin éstos los terceros. (Aizkibel 1856a: 1)

les trois classes des langues (*monosyllabisme, – agglomération ou agglutination, – flexion*) ont leur analogie dans les trois classes des organismes naturels (*minéraux, – végétaux, – animaux*). (Schleicher 1850 [1852: 30])

Orobat, Aizkibekek aipatzen ditu naturako gauza guztietan —hala naturaren hiru erreinuetan, nola nazio eta hizkuntzetan— aurkituko liratekeen jaiotze, hazkunde, gainbehera eta heriotza aro edo garaiak:

Todas las cosas naturales tienen su *origen o nacimiento*, su *crecimiento*, su *degradación o vejez* y su *muerte*, tanto los minerales, como los vegetales y animales, las naciones y sus lenguas; en fin, todo. En el curso de tantos miles de años se ven levantarse por grados los idiomas desde el estado monosilábico al de aglutinación para después descender aún al estado de flexión. La

---

<sup>11</sup> Schleicherren hiru egoeren teoriari buruz, ik., adibidez, Desmet (1996) eta Maher (1983). Orobat, Schleicherren lanak euskalaritzan izandako eraginaz, ik. Gómez (1989) eta Oyharçabal (2007).

experiencia demuestra que en los tiempos históricos declinan las lenguas, y que no podemos ver jamás el nacimiento de una lengua nueva; cuando aperecimos, a los primeros rayos de la historia, la lengua tan ricamente desarrollada, inferimos con razón que su formación tuvo lugar antes de la historia. (Aizkibel 1856a: 10)

Nolanahi ere den, Aizkibelek oso helburu zehatz batekin erabiltzen du Schleicherren eredua. Izan ere, erakutsi nahi du euskarak hizkuntzen aurrerapenari dagozkion hiru egoerak igaro dituela, hizkuntza flexibo gisako goren maila bizi izan duela eta oso aspaldidanik gainbehera aroan aurkitzen dela: “La *Euskera* ha pasado en muchos siglos por estas tres clases, que forman otras tantas épocas muy remotas, y hace más de veinte siglos que se la conoce en estado de decadencia” (Aizkibel 1856a: 1).<sup>12</sup> Hogeiki mende baino gehiago direla zehazten du Aizkibelek, haren ustez euskararen gainbeheraren hasiera erromatarren inbasioa baino askoz lehenago gertatu zelako:

Esta destrucción, o sea esta decadencia de la lengua, es muy antigua, y evidentemente empezó largo tiempo antes de la entrada de los Cartagineses y Romanos, como demuestran ya a los observadores las trazas de una alteración profunda. (Aizkibel 1856a: 11)<sup>13</sup>

Aizkibelek adierazten du zein diren, haren iritiz, euskarak, hiru aurrerabide egoerak eta goren maila igaro ondoren, bakoitzetik gorde dituen ezaugarri gramatikalak. Hartara, egoera monosilabikoari erro monosilabikoak eta denbora, pertsona eta modurik gabeko aditza (“sin juego ninguno, o sea sin conjugación, sólo con el infinitivo como los chinos”, Aizkibel 1856a: 1) legezkieke. Geroago, eransketa egoeran, orainaldia, iraganaldia eta geroaldia adierazteko aditz-bukaerak agertu ziren, baita argumentu ergatibo, absolutibo eta datiboekiko pertsona-komunztadura adierazten duten hizkiak ere (“las relaciones de agente, paciente, de persona a quien se dirige la palabra”, Aizkibel 1856a: 1). Aditz-hizkien kopurua gero eta handiagoa izan zen, harik eta flexio egoerara iritsi arte:

y así puede desafiar a la lengua más rica y más culta de las que se conocen, porque reúne una riqueza inmensa de elementos primordiales a la construcción más sencilla y económica que se pueda inventar. (Aizkibel 1856a: 2)

---

<sup>12</sup> Irudi luke Aizkibelek ez duela beti “gainbehera” adigaita era koherente batean erabiltzen; gehienetan Schleicherren moduan ulertzen du, baina inoiz helburu apologetikoa ezin saihestu eta nolabaiteko kontraesan bat sortzen zaio: “este idioma verdaderamente enigmático, como le llama A. Schleicher, se ha conservado en los fragosos bosques del Pireneo [...] porque su construcción gramatical, diferente enteramente de las demás lenguas que le rodean, es la más propia para preservarla de la corrupción y de la decadencia” (1856a: 2).

<sup>13</sup> Erka bedi grekoari buruzko Schleicherren (1850 [1852: 179]) beste pasarte honekin: “Cette destruction est quelquefois très-vieille; chez les Grecs, elle a évidemment commencé longtemps avant notre ère; le grec qu’on appelle *ancien* ou *classique* en le distinguant du grec *moderne* d’aujourd’hui, montre déjà aux observateurs les traces d’une altération profonde”.

Bere goren gradura iritsita, euskal deklinabidea aurkituko genuke eta horren barruan hiru numeroak (singularra, plurala eta mugagabea) eta hogeita zazpi kasuak, “todos diferentes y cada uno con su destino natural y propio sin poder confundirse con ningún otro” (Aizkibel 1856a: 2). Ez dago argi zein diren Aizkibelek aipatzen dituen hogeita zazpi kasuak. Izan ere, ordu arte argitaratu ziren eta Aizkibelek ezagut zitzakeen euskal gramatikan hiru joera nagusi daude euskararen kasu-sistemaren berri emateko (cf. Oyharçabal 1998: 442): alde batetik, sei kasuko eredu latindarra gordetzen duten autoreak ditugu (nahiz eta inoiz kasuen deiturak aldatu zituzten); bestetik, irizpide sintaktiko bati jarraitzen diotenak, kasu gramatikalak eta kasu adberbialak bereiziz; azkenik, irizpide formal batean oinarritzen direnak, hizki bakoitza kasu bati egokituz.<sup>14</sup> Hala eta guztiz ere, azken joera honetako gramatikan zerrenda luzeenak ez dute hogei kasu baino gehiago.

Euskararen goren mailak aditz analitiko bat ere ezagutu zuen, denbora eta pertsona-komuntadura bereizkuntza ugariko laguntzaile sistema bat zuen aditza alegia (Aizkibel 1856a: 2). Jakina, Aizkibelek euskararen bilakaerari buruz azaltzen duen hau guztia zeharo ongi ulertzeko kontuan hartu behar da haren testuan ez dela falta xede apologetikoa, euskararen perfekzioa ere frogatu nahi baitu.

Azkenik, gainbehera garaia euskalkien zatiketaren aurretik hasi zen, Schleicherrek (1850 [1852: 178-185]) grekoaren kasuan proposatzen duen bezalaxe (ik. 13. oh.). Paralelismoarekin jarraituz, Aizkibelek uste du euskalki batzuk kontserbatzaileagoak direla eta beste batzuk, ordea, berritzaileagoak:

Así como cuando el idioma primitivo de los Griegos empezaba a separarse o dividirse en sí mismo, y a producir grupos más o menos lejanos del tipo primitivo que se llamaron dialectos, los Dorios, y sobre todo los Eolios, guardaron muchas formas primitivas, y los dialectos Jonio y Ático se alejaron; así también en la Euskera han conservado los Bizcaínos más puros los tipos primitivos que los Guipuzcoanos y Labortanos, que se han alejado mucho de ellos. (Aizkibel 1856a: 11)

A cette époque [des Pélasgues], les Grecs étaient déjà possesseurs d'un idiome séparé des autres idiomes indo-germaniques, mais ce n'est que bien plus tard que cet idiome primitif commençait à séparer en lui-même et à produire des groupes plus ou moins éloignés du type primitif. Ces groupes sont des dialectes, nous les connaissons. Les dialectes des Dorians et

---

<sup>14</sup> Lehen joerari dagozkio, besteak beste, Oihenart (1638 [1656]), Larramendi (1729) eta, beranduago, Hiriart (1840); bigarrenari, Astarloa (1803) eta Humboldt (1817); hirugarrenari, Harriet (1741), Lécuse (1826), Darrigol (1827), Chaho (1836) eta, oro har, XIX. mendetik aurrerako euskal gramatika-lan gehienak.



surtout des Éoliens gardent beaucoup de formes primitives; les dialectes ionique et attique s'en éloignent. (Schleicher 1850 [1852: 180])

### 3. Euskara hizkuntza monosilabikoa

Schleicherrek (1850) euskara hizkuntza eransleen artean sailkatu zuen. Hala ere, aurreko atalean adierazi dudanez, Aizkibelek ohartarazten du euskarak oraindik bere lehenaldi monosilabikoaren aztarna ukaezinak gorde dituela.<sup>15</sup>

La tendencia de esta lengua al monosilabismo se conoce con toda claridad no solo en las características de las personas y tiempos de la conjugación, en que una sola letra o una sola sílaba representa toda una palabra significativa, sino también en la composición de las palabras, en donde se elide para mayor brevedad la mayor parte de la palabra, dejando una monosílaba suya representando la parte que la toca en la palabra últimamente compuesta. (Aizkibel 1856a: 3)<sup>16</sup>

Alderdi formalari dagokionez, Aizkibelek euskararen erroak sailkatzen ditu, silaba bakarrek, bi silabakoak eta hiru silabakoak bereiziz. Jatorrizko erro monosilaboak agortu ondoren, euskarak bi silabako erroetara jo zuen hitz berriak eratzeko; aldiz, hiru silabako erroak, haien egituragatik beragatik, ezin dira inoiz jatorrizkoak izan, Aizkibelen iritziz:

Hemos dicho que la *Euskera* es monosilábica en sus primitivas palabras que ahora llamamos raíces o radicales; porque forman la base de las palabras compuestas y de los derivados. Apuradas del todo las combinaciones monosilábicas, acudieron a las disilábicas; pero no las agotaron, sin duda por no confundir tal vez con las palabras compuestas de dos monosílabas. En lo que parece no hay duda es que no se encuentra ninguna radical trisilábica: en el mero hecho de contar con tres sílabas infunde sospecha de extranjera; aun muchas que se creían radicales disilábicas no son sino palabras compuestas de dos monosílabas. V.g. *men-di* (monte), *iz-ar* (estrella) etc. (Aizkibel 1856a: 3)

Esan gabe doa, honek guztiak aise ekartzen dizkigu gogora aitzineuskararen berreraiketan egindako azken aurrerapenak, oinarri teoriko eta iturri oso desberdinetatik abiatu arren, hauek ere antzinako erro monosilaboa proposatzen dutelako (zehazkiago, CVC egiturako erroa). Halako ikerketa ildoak kausitzen dugu azken hamabost urteotako hainbat lanetan Joseba Lakarrak aurkeztu eta garatu duen aitzineuskara zaharraren erro monosilabikoaren teorian (ik., adibidez, Lakarra 1995, 2004, 2005, 2006, 2008, 2009a-

---

<sup>15</sup> Bi jarrerak, ordea, ez daude kontrajarrita, Schleicherrek proposatu baitzuen “gramatika azaltzailearen” eginkizuna honetan datzala: “[d]écomposer les langues d’une classe supérieure et les réduire au monosyllabisme, rechercher dans les langues de flexion les racines monosyllabiques qui ont produit peu à peu par voie de composition les organismes des mots” (Schleicher 1850 [1852: 21]).

<sup>16</sup> Erka bedi euskarari buruzko Schleicherren beste pasarte honekin (1850 [1852: 136]): “En général, son principe vital est celui de l’agglutination; on le voit, par exemple, dans la formation des mots [...] Cette langue a cela de commun avec celles des indigènes de l’Amérique du Nord, qu’elle compose d’une manière singulière les mots de toute espèce. Elle supprime souvent des syllabes entières en composant, elle ne conserve quelquefois qu’une seule lettre dans le mot composé”.

b). Lakarraren analisisen arabera ere, erro monosilabotatik, denborarekin eta eratorpena, elkarketa edo erreduplikazioa bezalako baliabideen bitartez, hitz luzeagoak zein kategoria berriak sortuko ziren.

#### 4. Euskararen antzinasuna eta aberastasuna

Aizkibelek maiz erkatzen du euskara beste zenbait hizkuntzarekin, haren aberastasun handiak eta antzinasuna erakutsi nahian: hala, hebreera, kaldeoa, siriakoa, egiptoera, latina, grekoa eta finesa aipatzen dira eskuizkribuaren orrialdeetan zehar. Esate baterako, garai hartan ohikoa zen egiptoerari buruzko lilura erabiltzen du euskara are hizkuntza zaharragoa dela azpimarratzeko:

Estos principios generales están agotados en la naturaleza de la lengua Euskera mucho más aún que en la Egipcia, que se tiene por una de las más antiguas, y cuyos monumentos lo justifican. Ellos dan una idea clara y precisa de la marcha que se ha seguido en la combinación de los elementos que la componen. El sentido de una palabra radical monosilábica empleada según estos principios, y modificada en sus expresiones cuanto permite la idea de que es signo, puede sufrir cincuenta y ocho modificaciones o transformaciones, que espresan otras tantas modificaciones regulares de esta idea-raíz. La lengua Egipcia, una de las más ricas en este género, sólo puede sufrir, según Mr. Champolion, cuarenta y dos transformaciones. (Aizkibel 1856a: 4)

Oroit bedi hieroglifikoak urte batzuk lehenago deszifratu zituela Champollionek (1824). Nolanahi ere den, goiko pasartean Aizkibelek aipatzen duen Champollion hori ez da hieroglifikoaren deszifratzailea —Jean-François Champollion (1790-1832)—, baizik eta haren anaia nagusi Jacques-Joseph Champollion-Figeac (1778-1867). Erka bedi aurreko pasartea Champollion-Figeacen hurrengo honekin, Schleicherren kasuan bezala Aizkibelek ia hitzez hitz itzultzen baitu:

Ces principes généraux sont puisés dans la nature même de la langue égyptienne. Ils donnent une idée claire et précise de la marche qu'on a suivie dans la combinaison des éléments qui la composent.

Le sens d'un mot-racine monosyllabique employé d'après ces principes, et modifié dans ses expressions autant que le permet l'idée dont il est le signe, peut subir quarante-deux transformations exprimant autant de modifications régulières de cette idée-racine. (Champollion-Figeac 1840: 215)

Aizkibelek Champollion-Figeacen testuari erakusten dion atxikimendua ez da hor amaitzen; halako gehiago aurkitu ditzakegu *Euskera* eskuizkribuaren beste zenbait pasartetan. Adibidez, jatorrizko erroetatik eta erro sekundarioetatik erdiets daitezkeen eratorpen eta elkarketa motak aurkezten dituelarik (Aizkibel 1856a: 3-5), Aizkibelek horretarako azaltzen duen sistema ez da batere ulerterraza suertatzen, ia hitzez hitz Champollion-Figeacen lanetik (1840: 214-215) hartu baitu, euskararen ezaugarriei

egokitzeko ahalegin handirik egin gabe. Bi testuen hasierak bakarrik hona aldatzea aski da haien arteko antzekotasun handiaz ohartarazteko:

De estas palabras primitivas o raíces primarias se forman, ya por *derivación* o ya por *composición*, una infinidad de palabras empleadas para presentar, bajo diferentes aspectos que las modifican, la idea de la que es primitiva, por convención, el signo representativo. (Aizkibel 1856a: 3)

De ces mots *primitifs* ou *racines* se forment, par *dérivation* ou par *composition*, une foule de mots employés pour présenter, sous divers aspects qui les modifient, *l'idée* dont le primitif est, par convention, le signe représentatif. (Champollion-Figeac 1840: 214)

Une batez Aizkibel Champollion-Figeacen testutik urruntzen da euskararen inflexioak erakusten duen aberastasuna xeheki azaltzeko. Horretarako, aditz-denbora, modu, pertsona eta abarren artean litezkeen konbinaketa guztiak kalkulatzeko dituzte, adizki kopuru ikaragarrietara iritsiz:

En este caso son infinitas las combinaciones de la *Euskera*; pues en el modo indicativo del verbo activo tiene setecientos sesenta y tres mil trescientas cuarenta y cuatro inflexiones en los cuatro dialectos, nueve tiempos, veinte y tres relaciones, doce formas de oración y ochenta y un casos de declinación para los relativos. (Aizkibel 1856a: 4-5)<sup>17</sup>

Beste alde batetik, jakina denez, Astarloak proposatu zuen euskararen —hots, gizakien lehenengo hizkuntzan— letra bakoitzak berezko esanahia zuela (cf. Gómez 1999, 2004). Aizkibelek kritikatzeko du teoria hori, baina aitortzen du letra askok badutela esanahi bat, inflexio-hizki moduan erabilitako hitzen laburtzeak direnez gero:

pero realmente las letras en composición, y particularmente en la conjugación del verbo, tienen la representación de las palabras, elididas para la más fácil pronunciación y aglutinación, cuando ya la complicación se aumentaba en la multitud de radicales componentes de la palabra o de la inflexión. (Aizkibel 1856a: 6)

Eta adibide gisa, besteak beste, *g-* komunztadura-aurrizkia ematen du: “al principio de un verbo es representación de *gu* (nosotros), primera persona del plural” (Aizkibel 1856a: 6).

Euskararen aberastasun eta antzintasunaren beste froga bat erro bakar batetik lor daitekeen eratorri kopuru handia litzateke. Esate baterako, Aizkibelek adierazten du *am-*

---

<sup>17</sup> Halako kopuru harrapagaitzak Astarloa (1803, 1883) bezalako euskal apologisten oso gustuko ziren. Zernahi gisaz, badirudi Aizkibeli ez zaizkiola kontuak ondo ateratzen: 4 (euskalki) x 9 (denbora) x 23 (erlazio) x 12 (perpaus-forma) x 81 (deklinabide-kasu) = 804.816; nola iritsi da, orduan, testuan agertzen den 763.344 inflexio kopurura? Beste alde batetik, deklinabideko 81 kasuak lortu bide zituen 27 kasuak bider 3 numeroak eragiketarik.

‘madre’ errotik eratorriko liratekeen laurehun hitzetik gora daudela.<sup>18</sup> Haren iritziz, halako aberastasun batek aise erakutsiko luke euskara, bere goren mailan zegoen garaian, kultur hizkuntza zela eta herri oso zibilizatu eta boteretsu batek hitz egiten zuela (Aizkibel 1856a: 7). Bestalde, jatorrizko erroak gordetzean eta garatzean euskarak erakutsi duen iraunkortasunak ohartaraziko liguke gainerako hizkuntzek berari mailegatu zizkiotela erro horiek, eta ez alderantziz. Ildo horretan, eta *am-* erroan oinarritzen den argudioarekin jarraituz, honako hau dio:

Siendo una radical onomatopeya, es muy fácil la hayan adoptado diferentes Naciones para sus respectivas lenguas; pero también puede ser muy bien prestada por la más antigua a las más modernas [...] ¿Podrán presentar las lenguas Hebrea, Caldea y Siriaca una descendencia tan numerosa y legítima como la Euskera de esta raíz *am* que se disputa? (Aizkibel 1856a: 6-7)

Euskara oso antzinakoa denez, pentsatzen du grekoak eta latinak hitz batzuk hartu ahal izan zizkiotela maileguan. Pentsamolde hau euskararen apologien tradizioarekin lotzen da eta modurik landuena Larramendiren hiztegian (1745) ezagutu zuen:

He adquirido la convicción íntima de que muchas palabras que creía yo al parecer con toda seguridad que eran latinas, al hacer el estudio analítico, he visto que son compuestas enteramente de radicales de la Euskera (Aizkibel 1856a: 14)

Aizkibel guztiz ziur dago euskararen antzinatean handiaz; ez du erabat sinesten, ordea, euskal apologista batzuek aldeztu zuten (cf. Tovar 1980) eta Humboldt-ek (1821)<sup>19</sup> berri-itu zuen ideian, alegia, euskara Iberiar Penintsulako jatorrizko hizkuntza izan zela eta Antzinatean penintsula osoan hedatuta zegoela. Izan ere, Aizkibelek ulertzen du Humboldt-ek iritziz euskara penintsulan bertan sortu zen hizkuntza dela (*aborígene*), eta horren ordez pentsatzen du euskaldunak noizbait —oso antzina, noski— Espainiara heldu zirela (*advenediza*), tubalismoaren usteetara hurbilduz:

y aun el Sr. de Humbold la hace aborigene de España; pero yo no participo de la misma opinión, porque la lengua misma y sus significados me dicen que es advenediza en *España*, y este nombre puesto por ellos me confirma aún más. (Aizkibel 1856a: 7-8)<sup>20</sup>

---

<sup>18</sup> Aipatzen dituen adibideetarik asko, Garatek (1968: 124) susmatu zuenez, Larramendiren hiztegitik (1745) hartuta daude: *am-ar-asi* ‘enamorar’ (Lar. *amaraci*), *amarena* ‘materno’, *amaraztea* ‘enamoramiento’ (Aizkibelen gaztelaniazko itzulpenak ematen ditut).

<sup>19</sup> Aizkibelek Humboldt-en lan hau irakurri zuen J. M. Arguinizon-en 1835eko itzulpen eskuizkribatu baten bitartez, egun Koldo Mitxelena Kulturuneko Urkixo fondoan gordetzen dena (Humboldt 1835). Urkixok Arguinizon-en eskuizkribua aipatzen du —eta haren azala kopiatzen du— Garatek prestatu zuen Humboldt-en zuzenketen eta eransketen itzulpenaren sarreran (Urquijo 1933: 449, 452).

<sup>20</sup> Aizkibelek xehekiago azaltzen du bere ikuspuntua Garaibairen erretrauen edizioaren hitzaurrean (Aizkibel 1854: 651): “Mr. Guillermo Humbold hace ver con sus innumerables citas de geógrafos é historiadores antiguos que los Iberos eran anteriores á los Celtas en España: que la lengua de los Iberos es

Azken hitzak, ziurrenik, Astarloak (1803) *España* hitzari eman zion etimologiari dagozkio —Humboldték ere (1821 [1879: 73]) aipatu zuen—, nahiz eta Astarloaren iritziz etimologia horrek guztiz kontrakoa frogatuko lukeen:

De esta verdad toda natural se infiere que no hay derecho para buscar la etimología de la voz *España* fuera de nuestra península. En Bascuence esta voz, sin quitar ni poner letra alguna, significa el *labio* ó *extremidad*: la analogía es bellísima: la España es labio ó extremidad del mundo antiguo: esta creencia de los antiguos dió origen al Non plus ultra de las Columnas Hercúleas en el estrecho de Gibraltar. (Astarloa 1803: 195)

Ondoren, Aizkibelek euskararen aurreneko hitzak sortzeko prozedurak aurkezten ditu; lehenik imitazioz (onomatopeiak), geroago “antzekotasunen” eta “asimilazioen” bitartez. Eskuizkribuaren zati horretan orpoz orpo jarraitzen dio berriro ere Champollion-Figeacen (1840) liburuari; beraz, bi testuen hasierak baizik ez ditut hona aldatuko:

no nos podemos dispensar de presentar aquí algunos rasgos sobresalientes de la *Euskera*, muy propios para probar la originalidad de este idioma [...]. Encierra, en primer lugar, un gran número de palabras formadas por onomatopeyas. Como todas las lenguas que son primitivas, la *Euskera* procede por *imitación*, adhiriendo un sonido más bien que otro a la expresión de una idea dada, como si este sonido fuese imitativo de la idea misma; así es que el nombre de muchos animales no es más que la imitación aproximativa, según nuestro oído, del grito o canto del animal o pájaro. (Aizkibel 1856a: 7-8)

On doit faire remarquer aussi que la langue égyptienne renferme un grand nombre de mots formés par onomatopée.

Nous ne pouvons dispenser de présenter ici quelques traits saillants de la langue égyptienne; ils nous paraissent propres d’abord à prouver l’originalité de cet idiome [...]

Comme toutes celles qui sont primitives, la langue égyptienne procède par *imitation*, en attachant un son plutôt qu’un autre à l’expression d’une idée donnée, comme si ce son était imitatif de l’idée même. Ainsi, dans l’Égypte, le nom de la plupart des animaux n’est que l’imitation approximative, selon notre oreille, du cri propre à chaque animal. (Champollion-Figeac 1840: 215-216)

Euskararen antzinatasuna agerian uzten duten ezaugarri gramatikalen artean, Aizkibelek hogeita zazpi kasuko deklinabide bakarria izatea nabarmentzen du lehenik. Izan ere, deklinabide horri esker euskara latina edo grekoa bezalako hizkuntzen gainetik legoke, azken hauek ez baitute aski kasurik eta, ondorioz, preposizioez ere baliatu behar

---

la misma que hoy en día se habla en las provincias Vascongadas, y que estos eran los aborígenes de la España. Sobre esto de aborígenes ó autochtones tengo mi opinión particular, que está en armonía con la naturaleza y con las obras de ella, que han sido siempre polióicas y no monóicas. Lo que creo firmemente es que los *Euskaldunes* vinieron á Europa, y la bautizaron con este nombre por el gran sequio que hubo en Asia; *Euri-opa* (deseo de lluvia) y en ninguna lengua se encuentra su etimología mas que en el Vascuence. Pusieron los nombres de *Sik-ulia* (poblacion de los Sécanos) á Sicilia; Lig-uria (ciudad de la sequedad), Etr-uria (ciudad de los hermosos); España (borde, litoral, esquina, labio); pero donde se encuentran aun con mas abundancia los nombres vascongados sin salir de las reglas etimológicas es en el Asia”.

izan baitute; gainera, deklinabide asko dauzkate, horretarako inolako premiarik gabe (Aizkibel 1856a: 10). Singular eta pluralarekin batera numero mugagabea izatea euskararen beste abantaila bat litzateke, grekoak eta latinak ez baitute, baina ezta finesak ere, nahiz eta hizkuntza honek deklinabide bakarra izan (Aizkibel 1856a: 10).

Darrigolekin (1827) abiatzen den analisi ildo bati jarraituz, Aizkibelek deklinabidearen esparrua aditz morfologiara hedatzen du: “Esta sola declinación se apropia y arregla todos los nombres, pronombres, adjetivos y participios, todo lo que se llama en otras lenguas infinitivos de los verbos” (Aizkibel 1856a: 10). Darrigolen analisisian euskal aditzaren forma jokaturgabeak deklinabide atzizkiak har ditzaketen izenkiak lirateke, bere gogoetak “aditz bakarraren teoria” izenekoan kokatuz (cf. Gómez 2002, 2007); azken puntu hau ez da hain begien bistakoa Aizkibeli dagokionez, azkoitiarraren ustez aditza perpausaren atal arrunt bat delako:

Los verbos auxiliares, tanto el activo como el pasivo, con nueve tiempos, veinte y tres relaciones con características especiales que representan cada relación, con doce formas de oraciones que con la mayor sencillez se componen de letras o sílabas afijas en cada inflexión de verbo, indican con claridad el muchísimo y esmeradísimo cultivo que tuvo esta lengua en el estado de su mayor apogeo (Aizkibel 1856a: 2)

Azter ditzagun astiroago goiko pasartean zerrendatzen diren aditz akzidentek — tradiziozko terminologia erabiliz gero—, aurreko euskal gramatika-lanekin erkatuz: bederatzi aditz-denbora, hogeita hiru erlazio eta hamabi perpaus-forma. Hasteko, ez dakit zein diren Aizkibelek bereizten dituen bederatzi aditz-denborak, ezta iturriren batetik hartu dituen ere. Larramendik (1729: 58-66) berezko hiru denbora eta haien zazpi aldakuntza sailkatu zituen; Astarloak (1803: 151) bestelako kalkuluak egin zituen, sei aditz-denboratan oinarrituz; Darrigolek (1827: 115-118) ere sei denbora bereizi zituen, eta Lécluse-k (1826: 50 hh.) bi baino ez. Hogeita hiru erlazioei dagokienez, segurenik, Aizkibelek buruan ditu Larramendiren gramatikan zerrendatzen diren bi joko absolutuak (*dut*, *ditut*) eta hogeita bat joko erlatibo edo iragankorrak (NOR-NORI-NORK eta NOR-NORK paradigmei dagozkienak): “y assi son veinte y tres las Conjugaciones del verbo activo regular en la Euscara, ò Bascuenze” (Larramendi 1729: 57). Horiek horrela, Aizkibelek ahaztu ditu Larramendiren analisisian euskal aditz neutroak joko absolutu bat (*naiz*) eta zazpi joko erlatibo (NOR-NORI paradigmari dagozkionak) dituela: “Es pues una la Conjugacion absoluta, y siete las transitivas, ò relativas de qualquiera verbo neutro” (Larramendi 1729: 164). Azkenik, Aizkibelek aipatzen dituen perpaus-formak adizki jokatu bati konplementatzaile bat (erlatibozkoa, konpletiboa, etab.) eta,

gehienetan, postposizio bat edo batzuk eranstea sortzen dira. Hona hemen Aizkibelek berak eskuizkribuko beste pasarte batean eskainitako adibideak:

*Dakart.* Yo lo traigo  
*Dakart-ala.* Que yo lo traigo  
*Dakart-alarik.* Mientras yo lo traigo  
*Dakart-alako.* Porque yo lo traigo  
*Dakart-an.* Si yo lo traigo  
*Dakart-ana.* Lo que yo lo traigo  
*Dakart-anean.* Cuando yo lo traigo  
*Dakartaneko.* Para cuando yo lo traigo  
*Dakartanez.* Según yo lo traigo  
*Dakartandik.* De donde yo lo traigo  
*Dakartaño.* Hasta que yo lo traiga.  
*Dakartanunz.* Hacia donde yo lo traigo, etc. (Aizkibel 1856a: 5)

Akzidente mota hori ez da gaurko euskal gramatiketan agertzen; hala ere, ez zen guztiz ezezaguna euskal gramatikagintza zaharrean. Adibide zerrenda laburragoak eman bazituzten ere, zenbait autorek bereizi zuten halako zerbait aditzaren aldakuntza gisa, hala nola Oihenartek, *verbum compositum* terminoa erabiliz (1638 [1656: 62]), edo Lécuse-k, *modifications* deiturapean (1826: 55, 60).

## 5. Azken oharra

Sarrera honetan Jose Francisco Aizkibelek *Euskera* eskuizkribuan adierazi zituen hizkuntz ideiak azaldu nahi izan ditut. Ikusi dugunez, Aizkibel Espainian sartu berri ziren lan batzuk ezagutzen ditu, hala nola Schleicherrena (1850 [1852]), eta hizkuntzalaritza historikoko lan gehiagoz ere baliatzen da, Champollion-Figeac (1840) kasu. Bietan, Aizkibelek bere iturrien erabilera zabala egiten du, pasarte aski luzeak hitzez hitz, edo ia hitzez hitz, itzultzeraz ere iritsiz; haietan aldatzen duen gauza bakarra adibideak dira, euskarari buruzkoekin ordezkatzeko baititu inoiz. Jakina, aurreko orrialdeetan ez ditut azaldu Aizkibelek Schleicherren eta Champollion-Figeac-en lanen pasarteak itzultzen dituen adibide guztiak, beti ere iturria aipatu gabe. Horretarako, beherago dagoen *Euskera* eskuizkribuaren ediziora jo dezake irakurleak. Beste alde batetik, oso litekeena da Aizkibel identifikatu ezin izan dudana beste iturriren batez ere baliatzea. Zernahi gisaz, uste dut ekarri dudana erakusgarria nahikoa dela ohar gaitzen Aizkibelek nola eta noraino erabili zituen bere iturriak.

